# Euzkadi

BILBAO 1918

Urrutizkiña 1547'g
Teléfono núm. 1547
Bidayen Itunduba
Franqueo concertado

IDAZKOLEA TA BANAKOLEA
REDACCION Y ADMINISTRACION
Plaza Nueva, núm. 8, 2.º

OTSALLA 16 'na LARUNBATEA

FEBRERO día 16 SABADO

VI URTIA
AÑO VI
1865 g zenbakiya
Número 1865


## EGUNEKUA

### Euzkel-ixenak

SAN SALVADOR DEL VALLE'N.—"Iñaki" Agirregabiria'tar Koldobika eta Uriagereka'tar Pelikite'n semiari.

BERRIATUA'N.—"Sabin", Kaltzakorta'tar Joseba Mirena eta Azpiri'tar Miren'en semiari.

Zorijonak euzkeldun benetako onei, ta ikasi beye beste askok zuen bide zintzo ori. ¡Bua aurrera gure abenda-ele zar gastia!

* * *

### "Jaungoiko Zale"

Illa onen 15'gnekua atzo etorri yakun. beti lez polito dator, Bertan irakurri dogu olerki eder ba Gabirel'ak egiña. Olerkija Auts-egubastenari yagokona ixan' arren berrargitaldu egiten dogu uste ixanik gure irakurliak atsegiñez irakurriko dabela. Gabirel au abade gaste bat da, ta aspalditxuon asi da bere olerkari-eguak zabaltzen, eta ederto; ia ba, ekin. Gure irakurlen artian ixango dira itzen batzuk ulertuko eztabezanak, eta orregaitik ona baztuen ikurrak: gogaldu, meditau; geide, projimua; dollorra, gixon txatxarra; esduntz, kate; Doipuru, Aite-Santu; Bakaldun, Errege.

## Candidatura Nacionalista

para la elección de

## Diputados á Cortes

## BIZKAYA

DISTRITO DE BILBAO

**Don Pedro de Chalbaud y Errazquin**

DISTRITO DE BALMASEDA

„ **Ramón de la Sota y Llano.**

DISTRITO DE BARAKALDO

„ **Alejandro de Zaballa y Loizaga.**

DISTRITO DE DURANGO

les y espirituales no descubrió luego el genio nacional en el santuario de la raza! Ellas explican el derrumbamiento repentino del alcázar de la libertad vasca.

Promulgóse la inicua ley del 39 y siguieron los vascos á la defensiva. Desarrollaron los gobiernos españoles esa ley, confirmando la muerte de la soberanía legislativa, la muerte de nuestra libertad de comercio, de nuestra administración de justicia, de nuestra organización municipal, y los vascos prosiguieron cediendo.

Vino el 21 de Julio de 1876, y la táctica defensiva fué coronada con la imposición de quintas y contribuciones. Apareció el r´gimen de Concierto, puente, para ellos, por el que nos arrastraran suavemente á la plena absorción. Y á la eterna ofensiva de los Gobiernos españoles, empeñados en hollar, por Reales órdenes y Reales decretos, la legalidad que nos impusieron, contestamos enviándoles comisiones de diputados para la defensa de los intereses vascos, para parlamentar, para ceder...

Hoy, 16 de Febrero de 1918, día trascendental, como pocos, de la historia vasca, podemos anunciar la muerte de esa política cobarde que nos ha llevado al borde del abismo. La Comunión Nacionalista Vasca, fundada por Sabino, el salvador de la patria, anuncia hoy, con su decisión de acudir al Parlamento español, que la era de la defensiva terminó. Veinticinco años de labor rudísima, de padecer afrentas, de sufrir injusticias dolorosas como el hie-

## Pulvis es...

"Auts zaralako austuko zara,
egi au ondo gogaldu",
Auts-egunian Ama Elexa'k
kistar orori diñosku.
Egi au zarra izan arren be
beti da barri-barria:
pozgarria da kistar onentzat,
txarrentzat bildurgarria.

Arrokerizko axez biotza
gustiz dozuna puztuta,
danen nagosi izan nai dozu
egi onegaz aiztuta?
Buruan autsa ipiñiagaz
Ama Elexa'k diñotzu:
"auts zaralako austuko zara
gizon arroa gogaldu".

Aberastasun ugaltasunak
dautzu biotza dollortu?
geide gaxoai laguntzeko
errukibako biurtu?
Entzun Ama'ren egi sakona
eta biotza samurtu:
"Auts zaralako austuko zara
gizon dollorra gogaldu".

Lizunkerizko ekandu txarrez,
dozu biotza lotuta?
lurrera beti zagoz begira
Jaungoikoa'gaz aiztuta?
Entzun zuk bere Ama'ren deya
estuntz gogorrok apurtu:
"Auts zaralako austuko zara,
gizon lizuna gogaldu".

Doipuru izan nai Bakalduna,
jakinge nai jakintsua,
txiro gaxorik bizi dan ala
aberatz osasuntsua:
Entzun gustiok, egi garratzau;
Elexa'k oroi diñosku:
"Auts zaralako austuko zara,
egi au gizon gogaldu".

GABIREL.

# BETHLEEM'GO ESTALPEAN

"Askatxo baten
lasto gañean,
zakustan aurroi
dar-darka,
abelapalak
euren arnasaz
berotzen zaunoi
¿nor zara?"

"Eztalpetxo bat
ez d'a zeurerik?
Ezta seyaska
zar bat be?
Maite; nor zaran
esakedazu,
ez dazaut ba iñor
ain gabe."

"Txirotasuna
seme ete zara?
Ezertxo barik
zagoz ba.
"Apaltasuna"
da zeure izena?
esan yakin nai
nago-ta."

Bidezti batek
auxe galdetu
eutson Bethleem'go
txabolan,
ta, Yosu maitek
askan zegola
erantzun eutson
onelan:

"Ni naz ludiko
Yabe Bakarra,
Yaungoikoaren
Semea,
Izaki oron
Iratzale ta
ludi gustiko
Argia."

"Askatxo baten
ikusiarren
etzaitez geldu
gizona,
zeugaitik Gizon
egin naz ba, ta
"Maitasuna" dot
izena."

.......... .......... .......... .......... ..........

"Yaun-maitasuna...!
Yaun-maitasuna...!
Nok neurtu zeure
indarra...?
—Esaten gurtu
eban biotzez
Yaungoiko-Seme
Bakarra."

# Asis'tar Prantzisko Deuna

1226-1926

Gizon triroa, apal, otzana
agertu zan bein ludian,
gogorkeri ta andi ustea
nagosi ziran aldian,
giza-biotzak izoztuta lez
urre-zalez gogortuta
bizi zrean alkarren aurka
kistar legeaz aztuta.

Soñeko zarra lokarri latzaz
garrian inguraturik,
Yaungoiko eta geidearentzat
maitasun-garrez beterrik,
Asis aldean dager Prantzizko
gizon apal ta otzana,
giza-biotzak goikoaz bera
zuzendu bear euzana.

Asarretuta egozaneri
esaten dautse: "Anayak!
Goiko Aitaren seme zarie;
amaitu zeuen zemayak.
Alkar maitatu diñosku Aitak
eta maitatu biotzez,
nai bozu bizi emen gentzaz ta
gero betiko zorunez.

"Arrokeria yaurti betiko
gogoz zeuen botzetik,
gaiztakerien sustarra da-ta
aidendu bere bdetik.
Agintaritza otseintza da-ta,
agindu apaltasunez,
orixe da ba, bide zuzena
gure Yaunak diñoskunez.

Ondasunaren izena dauna,
"Ondamendien" sustarra
dalako, maite goi-ondasunak:
an dago zorun bakarra".
Onexek dira itz ta egitez
Prantzizko'n irakatsiak,
auxe diñoe bere soñeko
Kristo'ren zauri biziak.

Onexen bidez maitasun-gentza
erein eban biotzetan,
Kristoren usain gozo bikaña
zabaldu erri danetan.
Gorroton ordez, maitetasuna,
asarre ordez bakea,
toki danetan dakus Prantzizko'k
nagosi Kristo'n legea.

Eta izaki maitale zanak
(gustientzat zan anaya)
maitasun-garrez urtuta legez
dakus urrean amaya.

Eta orduan zauritutako
besoak zabal-zabalik,
bere "Arreba" eriotzari,
diñotso pozez beterik:
"Ene arreba maite-maitea
zu zara nire laguna;
zure bitartez besartetukot
ointxe neure Yakun kutuna"...

Saspireun urte dira; itz oneik
Asis uriko txoriak,
entzun ebezan eta dirudi
gaur diñoela gustiak:
"Gure anaya nagosi zana
yoan zan ludi ontatik,
bere argia bialduteko
beti ona goi-zerutik...

GABIREL

# EUZKERAZ

## Chateaubriand'en azkenengo itzak

1848'ko bagillan Paris'ko uria naspilduta zebillen, Luis Felipe Erregetzatik kendu ta Errepubllkea ipiñi eben. Uri inguruan kañoi tunbada gogorrak entzuten ziran.

'An urrean "Chateaubriand" idazle ospetsua, bere bizitzako azkenetan zegoan. Aizkide batsuk inguruan zituala, gustiak ixilik egozan bitartean, kañoien orrua bizitu zan, eta iltzer zegoanen beiarriatarańo eldu zan.

Orduan "Chateubriand"-ek eskuetan gurutza artu, eta berari arretaz begira yarririk, gogo gustiaz esan eban:

"¡Gaurko gizadiaren errukarria! Une gustietan, burua aldatzen zabiz, eta ondiño ez dozu ulertzen, Kristo'k bakarrik gaizkatu zeinkezala. Ara emen; auxe da nire Errege!..."

Itzok esanaz bere bizia amaitu eban.

GAMA

# Kristo gure Errege

Aintzaldu daigun Kristo Errege
Yaungoikoaren Semea;
goraldu daigun kistar gustiok
Yaungoiko-Gizon Yabea.

Yaungoiko danez bakaldun dala
gustiok dogu ziñesten;
Gizon danez be, altasun oro
dagokiola autortzen.

Beren izatez Yaun eta Yabe.
egitez oron bakaldun,
Beren odolaz erosi gaitu.
¡Errege autortu daigun!...

Guretzat Bera egi bakarra
guretzat Bera Legea;
guretzat Bera Bizitza eta
Bera bakarrik Bidea.

Etsai gaiztoak didar dagie:
"¡Ez dogu nai gure Errege!"
Kistar gustiok erantzun daigun:
"¡Bera da gure, Yaun Yabe!"

Yesu-Kristo'ren Erregetzea
Bizitza ta Egizkoa;
deuntasun eta zuzentasunez
maitasunez betekoa.

Beragandik, ba, aldentzen danak
eriotza dau yaubea,
gaiztakeri ta gorroto baltza
¡zoritxarraren semea!

Didar daigun ba, "Kristo Errege
bakartzat autortzen dogu;
itz ta egitez bizi gustian
Bere menpeko gara gu."

Bera Burutzat artzen dogula,
guzur ta gaiztakeria
baztertu daigun gizon artetik:
zabaldu on ta egia.

Beraganduaz adimen oro
biotz gustiaz batean,
Kristo bakarrik nagosi dala
bakean bizi gaitean...

GABIREL

("Jaungoiko-Zale"-tik.)

